KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA, DONOSTIA ZINEMALDIKO GONBIDATUENTZAKO OSTATUA KONTRATATZEKO ESPARRU-AKORDIOARENA (3 izarreko hotelak)

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

AURKIBIDEA

1.- KONTRATUAREN XEDEA 1
2.- ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA 1
3.- ESLEITZEKO PROZEDURA 1
4.- ALDAERAK 1
5.- KONTRATU AGIRIAK 1
6.- KONTRATUAREN IRAUPEN EPEA 1
7.- ELEMENTU EKONOMIKOAK 2
8.- PREZIOA ORDAINTZEA 2
9.- PREZIOAK BERRIKUSTEA 2
10.- PUBLIZITATEA 2
11.- KONTRATATZEKO GAITASUNA 3
12.- PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA 4
13.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK 6
14.- KONTRATAZIO MAHAIA 6
15.- PROPOSAMENAK IREKITZEA 6
16.- KONTRATUA ESLEITZEA 7
17.- KONTRATUA FORMALIZATZEA 9
18.- KONTRATUAREN ARDURADUNA 9
19.- KONTRATUA GAUZATZEA 10
20.- FUNTSEZKO KONTRATU BETEBEHARRAK 10
21.- DATU PERTSONALEN BABESA 12
22.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU BETEBEHARRA 12
23.- ERANTZUKIZUNA 12
24.- ASEGURUAK 12
25.- JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA 13
26.- ZIGORRAK 13
27.- KONTRATUA LAGATZEA 14
28.- AZPIKONTRATAZIOA 14
29.- KONTRATUA ALDATZEA 15
30.- LANA JASOTZEA 15
31.- KONTRATUA ETETEA 16
32.- KONTRATUA DEUSEZTATZEA 16
33.- ARAUBIDE JURIDIKOA 17
34.- JURISDIKZIOA 17

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Prozedura honen xedea da FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN SAk Klausula Administratibo Partikularren Plegu honen **karatulako** (aurrerantzean karatula) **1. puntuan** adierazitako zerbitzuak emango dituen kontratista(k) hautatzea.

Zerbitzu horiek plegu honi eta kontratist(ar)en proposamenari jarraituz gauzatuko dira.

Kontratua zatitu ahal denean, zati bakoitza banan-banan gauzatzea aurreikus daiteke, kontratua lotetan zatituz, eta **karatulako 1. puntuan** jasoko dira: kontratua zein lote zehatzetan banatuta dagoen, horrela bada, lizitatzaile berak zenbat lotetarako eskaintza egin dezakeen; horrela bada, lizitatzaile bakoitzari zenbat lote esleitu ahal izango zaizkion; eta kasu bakoitzean erabakitzen diren bestelako alderdiak.

Kontratuaren CPV kodea **karatulako 1. puntuan** adierazi da.

2.- ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN SA (aurrerantzean, Zinemaldia) da erakunde kontratatzailea.

Karatulako 2. puntuan adierazten dena da kontratazio-organoa eta, hala badagokio, eta aplikatzekoak diren zuzenbide pribatuko arauak jarraituz, egokitzat jotzen dituen pertsonak izendatu ditzake, berariaz, kontratuarekin lotutako jarduera jakin batzuk gauzatzeko.

3.- ESLEITZEKO PROZEDURA

Prozedura irekia erabiliko da kontratua kalitate-prezio erlaziorik onena aurkezten duen lizitatzaileari esleitzeko, plegu honetan esleipena egiteko ezarritako irizpideei jarraituz (aurrerantzean, eskaintza onena).

4.- ALDAERAK

Lizitatzaileek aldaerak aurkezteko aukera **karatulako 3. puntuan** dago adierazita.

Aldaerak onartzen badira, **karatulako 3. puntuan** daude adierazita horien gutxieneko baldintzak, modalitateak eta ezaugarriak, bai eta kontratuaren xedearekiko lotura ere.

5.- KONTRATU AGIRIAK

Honakoak dira kontratu-agiriak:

- Klausula administratibo partikularren plegu hau eta karatula.
- Baldintza teknikoen plegua.
- Adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintza.
- **Karatulako 4. puntuan** adierazitako gainerako agiriak.

Agiri horiek adjudikaziodunak sinatu beharko ditu kontratua formalizatzen denean, guztiak onartzen dituela egiaztatzeko.

6.- KONTRATUAREN IRAUPEN EPEA

Kontratuaren iraupen epea **karatulako 5. puntuan** adierazitakoa izango da.

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

7.- ELEMENTU EKONOMIKOAK

7.1.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **karatulako 6.1. puntuan** adierazitakoa izango da.

Bestalde, kontratuaren prezioa ere **karatulako 6.1. puntuan** ezarriko da. Kontratuaren prezio horretan sartuko dira kontratua gauzatzeko beharrezko diren kostu guztiak, besteak beste, adibide moduan adierazita, honakoak:

- Kontratua plegu honetan aurreikusitakoari jarraituz gauzatzeko beharrezko diren kostu zuzen eta zeharkako guztiak, eta aurrerago ezingo dira fakturatu azken prezioan aurretik jasota egon beharko luketen kontzeptuak.

- Kontratua gauzatzeko berezko diren kontzeptu guztiak eta kontratua gauzatzeko erabilitako langileei dagozkien gastu guztiak (besteak beste, soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gauez eta jai-egunetan egiten diren lanak, langileen bajak edo gaixotasunak direla-eta egiten diren ordezkapenak, istripu indibidualetarako aseguruak, eta abar), bai eta zergak (BEZa kanpo), aseguruak, lizentziak, garraio eta joan-etorrietarako gastuak, baimenak eta gainerako gastu orokor guztiak.

- Kontratistak kontratua gauzatzeko erabili behar dituen baliabide, erreminta, ibilgailu, ekipamendu, tresna, ekipo informatiko eta aparatu guztiak.

- Zinemaldiak zehazten dituen informazio- edo lan-bileretara joatea, kontratua ondo gauzatu eta bete ahal izateko.

- **Karatulako 6.1. puntuan** adierazitako beste kontzeptu guztiak.

7.2.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia **karatulako 6.2. puntuan** adierazitakoa da. Zenbateko hori kalkulatu da 2014ko otsailaren 26ko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 101. artikuluan aurreikusitako moduan eta eraginetarako.

Aurreikuspen horrek ez dakar konpromiso jakinik Zinemaldiarentzat.

8.- PREZIOA ORDAINTZEA

Ordainketa jasotzeko, beharrezkoa izango da dagokion faktura aurkeztea eta Zinemaldiak onartzea.

Ez da ordainduko plegu honen kontratu xedetik kanpo egindako lanik edo zerbitzurik, edo, hala badagokio, Zinemaldiak aldez aurretik eskatu ez duen lan edo zerbitzurik.

9.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Karatulako 8. puntuan xedatutakoa aplikatuko da.

10.- PUBLIZITATEA

Erakunde kontratatzailearen profilean argitaratuko dira:

- Lizitazio iragarkia.
- Kontratuaren esleipenaren iragarkia.
- Kontratuaren formalizazioaren iragarkia.
- SPKLren 63. artikuluan adierazitako gainerako informazioa.

Honako webgune honen bidez sar daiteke Zinemaldiko kontratatzailearen profilean: www.sansebastianfestival.com.

Iragarkiak Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko dira.

11.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Zinemaldiarekin kontratatu ahal izango dute jarduteko ahalmen osoa duten, kontratatzeko debekurik ez duten eta behar adinako kaudimena dutela frogatzen duten Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoek.

Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko eska daitekeen gaikuntza profesionala edo enpresa gaikuntza izan beharko dute.

Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik esleituko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera-esparrua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.

Zinemaldiarekin kontratatzeko gaitasuna izango dute, edozein kasutan, Europar Batasuneko kide diren estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatuta duten estatuetako enpresa ez-espainolek, baldin eta enpresak ezarrita dauden estatuko legeen arabera dena delako prestazioa gauzatzeko gaikuntza badute. Kasu horretan, SPKLren 67. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Estatu batek bere lurraldean ezarrita dauden enpresei baimen bereziren bat izatea edo organizazio jakin batekoak izatea eskatzen badie bertan dena delako zerbitzua emateko, enpresek egiaztatu egin beharko dute betetzen dutela baldintza hori.

Nazioarteko akordioen ondorio diren Espainiako betebeharrak aplikatzen diren alde batera utzita, Europar Batasuneko kide ez diren estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatuta duten estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek txosten baten bitartez egiaztatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak aukera ematen diela Espainiako enpresei SPKLren 3. artikuluan zerrendatzen diren sektore publikoko kideko erakundeekin egiten diren kontratazioetan funtsean modu bertsuan parte hartzeko. Txosten hori Espainiak dagokion estatuan duen Bulego Ekonomiko eta Komertzialak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioari erantsiko zaio.

Zinemaldiarekin kontratuak egin ahal izango dituzte asmo horrekin aldi baterako elkartzen diren enpresaburuek, eta ez dute eskritura publikorik egin beharko, harik eta kontratua beren alde esleitzen den arte. Edozein kasutan SPKLren 69. artikuluan aurreikusitakoari jarraituko zaio.

Lizitatzaileek **karatulako 9. puntuan** adierazitako gutxieneko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta profesional edo teknikoa egiaztatu beharko dute.

Edozein kasutan, lizitatzaileek **karatulako 9. puntuan** adierazitako giza baliabideak eta/edo materialak atxikiko dizkiote gutxienez kontratuari.

Horrez gain, lizitatzaileek **karatulako 9. puntuan** adierazitako baldintza espezifikoak ere bete beharko dituzte.

Baldin eta lizitatzaileei kontratua gauzatzeko giza baliabide eta/edo material jakin batzuk jartzeko konpromisoa eskatzen bazaie, konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKLren 211.f) artikuluan aurreikusitako eraginetarako, eta konpromiso hori urratzea kontratua bertan behera uzteko arrazoia izan daiteke, Zinemaldiak hala nahi badu.

Kontratistak alde bakarrez aldatzen badu kontratua gauzatzeko jarritako pertsona, Zinemaldiak eskatu ahal izango du hitzemandako pertsona berehala jartzeko edo, ostera, kontratistarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezinezkoa bada, berehala ordezkatzeko prestakuntza eta esperientzia berdina duten giza baliabideekin. Pertsona horrek Zinemaldiaren berariazko adostasuna izan beharko du.

Eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko eskatutako konpromisoa egiaztatzeko, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu ahal izango da, haiekin duen lotura juridikoa alde batera utzita, betiere egiaztatzen badu kontratua indarrean dagoen bitartean izango dituela kaudimen hori eta/edo baliabide horiek, eta baliatzen duen erakunde horrek ez badu kontratatzeko debekurik.

Beste erakunde batzuekin kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritzeko asmoa duten lizitatzaileek adierazi egin beharko dute 1. Gutun azalean sartu behar den erantzukizunpeko adierazpenean (zehazki, EKABeko II. zatiko C atalean).

Gainera, eskaintza onena aurkezten duen lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu, egiaztatu beharko du beharrezko baliabideak izango dituela, eta hori egiaztatzeko erakunde horien konpromiso idatzi aurkeztuko du (**III. Eranskineko** ereduaren arabera idatzita).

Konpromiso hori notario aurrean egin beharko du/dute eskaintza onena egiten duen lizitatzaileak eskatutako kaudimena eta/edo eskatutako baliabideak egiaztatzeko baliatzen duen/dituen erakundeak/ek, eta honakoa adieraziko dute: lizitatzaileak parte hartzen duen lizitazioaren baldintzen eragina ezagutzen dutela; aipatutako kaudimena eta atxikitzekoak diren baliabideak dituztela, dagokion ziurtagiria aurkeztuz (16. klausulan adierazten den moduan), eta aipatutako lizitatzaileari, adjudikaziodun suertatzen bada, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren bitartekoak uzteko borondate ezeztaezina duela (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuko dute, eta bitartekorik ordezkatu edo aldatu behar bada, Zinemaldiak berariaz baimendu beharko du). Idatzi hori aurkezteak adieraziko du Zinemaldiak onartzen duela konpromiso hori, baldin eta lizitatzaile hori adjudikaziodun gertatzen bada.

Eskaintza onena aurkezten duen lizitatzaileak 10 egun naturaleko epean aurkeztuko du konpromiso hori, kontratazio-organoak egindako eskakizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Klausula honetan gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez egoteari buruz jasota dauden eskakizunak bete beharko dira eskaintzak aurkezteko azken egunean, eta kontratua osatzen den momentuan mantendu behar dira.

12.- PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

12.1.- PLEGUETARAKO ETA GAINERAKO AGIRI OSAGARRIETARAKO SARBIDEA

Pleguak eta gainerako agiri osagarriak lizitazio iragarkia argitaratzen den egunetik eta proposamenak aurkezteko epea zabalik dagoen bitartean egongo dira eskuragarri Zinemaldiaren kontratatzailearen profilean.

Pleguak eta gainerako agiri osagarriak bitarteko ez elektronikoen bidez zein kasutan eskura daitezkeen **karatulako 10.1 puntuan** adieraziko da.

12.2.- AURKEZTEKO BIDEAK

Lizitatzaileek eskuan edo posta bidez, **karatulako 10.1 puntuan** adierazitako epean, lekuan eta ordutegiaren barruan, 3 gutun azal itxi aurkeztuko dituzte, barruan gero adieraziko diren agiriak dituztela. Gutun azal horietan idatziko dira zein kontrataziotan parte hartuko den, zenbatgarren gutun azala den (1. Gutun azala, 2. Gutun azala edo 3. Gutun azala, dagokiona, alegia), enpresaren izena eta proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak (zer izaerarekin egiten duen adierazita), telefono zenbakiak eta helbide elektronikoa. Dena ongi irakurtzeko moduan.

Lizitatzaileak proposamena postaz bidaltzen baldin badu, bidali duen eguna egiaztatu beharko du postetxean, eta eskaintza posta bidez bidali duela adierazi beharko dio Zinemaldiari data bereko fax (**943481218**) edo posta elektroniko (compras@sansebastianfestival.com) bidez. Posta elektronikoa erabiltzen bada, jakinarazpen guztiak bidali eta jaso direla ziurtatuko da, eta dagozkien datak eta edukia ziurtatuko dira; gainera, bidaltzailearen eta hartzailearen identifikazio zehatza egingo da; bidalketa horrela bakarrik izango da baliokoa. Ez da dokumentazioa onartuko bi baldintza horiek betetzen ez badira eta dokumentazioa iragarkian adierazitako epea amaitu ondoren jasotzen bada. Adierazitako dataren ondoren 10 egun natural igaro eta proposamena jaso ez bada, ez da inola ere onartuko.

12.3.- GUTUN-AZALEN EDUKIA

Lizitatzaileen proposamenak plegu eta karatula honi, baldintza teknikoen pleguari eta gainerako kontratu-agiriei egokitu beharko zaizkie, eta proposamena aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea horietako klausula guztien edukia, inolako salbuespenik eta erresalburik gabe.

Gutun-azal bakoitzak ondoren adierazitako agiriak edukiko ditu, eta bertan dauden dokumentuen zerrenda zenbakitua izango du.

1. Gutun azala: "ALDEZ AURREKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUTEN AGIRIAK"

Lizitatzaileek honako agiriak aurkeztu behar dituzte:

1) Erantzukizunpeko adierazpena: Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (aurrerantzean EKAB) formularioari egokituko zaio eta jarraian adierazten den moduan beteko da:

   - Europako kontratazio agiri bakarraren formulario normalizatua ezartzen duen Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 Betearazteko Erregelamenduaren (EB) I. Eranskinean jasotako jarraibideen arabera beteko da EKAB.

   - Lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenera eta/edo baliabideetara jotzen badu, plegu honen 11. klausulari jarraituz, erakunde horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du EKABeko II. zatiko A atalean ("Eragile ekonomikoari buruzko informazioa"), eta B atalean ("Eragile ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa") eta III. zatian eskatutako informazioa.

   - Hainbat enpresaburuk lizitazioan aldi baterako enpresa-elkarte bat osatuz parte hartzen duten kasu guztietan, enpresa bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, eta bertan EKABeko II. zatitik V. Zatira bitartean eskatutako informazioa jasoko da.

2) Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bitartekoa aukeratzea, plegu honen **I. Eranskineko** ereduaren arabera.

3) Karatulan eskatutako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa.

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.

- Kaudimen teknikoa edo profesionala. Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-enpresaren erregistroko dokumentua. Aurreko lizitazioan aurkeztutakoarekiko informazioa aldatu bada edo indarrean ez badago bakarrik aurkeztu beharko da.

2. Gutun azala: "APLIKATZEKO BALIO JUDIZIOA BEHAR DUTEN KUANTIFIKAZIO IRIZPIDEEI BURUZKO AGIRIAK"

Lizitatzaileek **karatulako 10.2 puntuan** adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte gutun azal honetan.

Lizitatzaileak arreta berezia jarri beharko du gutun azal honetarako dokumentuak prestatzerakoan, edukiari buruz adierazitako jarraibideak bete beharko baititu. Era berean, ez da formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei loturiko dokumentazioaren inguruko (3. Gutun-azala) zantzurik edo informaziorik eman dezakeen aipamenik egingo.

Printzipio horiek urratzen dituzten eskaintzak atzera botako dira eta prozeduratik kanpora utziko dira.

Zinemaldiak eskubidea du lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

3. Gutun azala: "FORMULAK ERABILIZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO AGIRIAK"

Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa plegu honen **II. Eranskineko** ereduaren arabera aurkeztu beharko dute lizitatzaileek.

Zinemaldiak, esleipena egin aurretik edo ondoren, nahiz kontratuaren indarraldian, 1., 2. eta 3. gutun azaletan aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatu ahal izango du. Enpresak datu eta egoera faltsuak aurkeztea kontratua bertan behera uzteko arrazoia izan daitekeela uler daiteke, kontratistari egoztekoak diren hutsegiteak izan direlako.

13.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Esleitzeko irizpideak eta dagozkien haztapenak **karatulako 11. puntuan** adierazitakoak izango dira.

14.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio-organoak kontratazio mahai baten laguntza izango du, eta **karatulako 12. puntuan** adierazitakoak izango dira mahai horretako kideak.

15.- PROPOSAMENAK IREKITZEA

Kontratazio mahaiak garaiz eta modu egokian aurkeztutako 1. Gutun azaleko ("Aldez aurreko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak") dokumentazioa baloratuko du lehendabizi. Aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak edo omisioak hautematen baditu, Zinemaldiak 3 egun naturaleko epea emango dio lizitatzaileari hauek zuzentzeko.

Ondoren 2. Gutun azala ("Aplikatzeko balio-judizioa behar duten kuantifikazio-irizpideei buruzko agiriak") irekiko da, bertan dagoen dokumentazioa aztertu eta baloratzeko.

Balio-judizio baten mendeko ebaluazioa duten irizpideek formulen bidez ebaluatuko diren irizpideei dagokien haztapena baino haztapen handiagoa jasoko balute, balio-judizio baten mendeko ebaluazioa duten irizpideak **karatulako 12. Puntua**n ezarritako osaera duen Batzorde batek ebaluatuko ditu.

2. Gutun azaleko agiriak aztertu eta baloratzen direnean, 3. Gutun azala ("Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko agiriak") irekiko da. Lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie 3. Gutun azala zein egunetan, ordutan eta lekutan irekiko den.

3. Gutun azala ("Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko agiriak") ireki aurretik, balio-judizioa behar duten kuantifikazio-irizpideei buruzko agirien balorazioaren emaitza jakinaraziko zaie lizitatzaileei.

Hori egin ondoren, 3. gutun azala ("Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko agiriak") irekiko da, agiriak aztertu eta baloratzeko.

Kontratazio mahaiak baztertu egingo ditu 1098/2001 EDren 84. artikuluan aurreikusitako kausaren batek eragiten dien proposamenak, eta kontratazio organora igorriko du aurkeztutako proposamenen zerrenda, **karatulako 11. puntuan** ezarritako esleipen-irizpideak kontuan hartuta puntuazio altuena duenetik txikiena duenera sailkatuta, eta eskaintza onena identifikatuko du.

Lizitatzaile jakin bat kanporatzea erabakitzen bada, Zinemaldiak berariaz jakinaraziko dio baztertze hori baztertutako lizitatzaileari.

Proposamena egin aurretik, esleipenari buruz nahi beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Eskaintza bat bideragarria ez dela susmatzen bada, hala badagokio, **karatulako 11. puntuan** adierazitako parametroen arabera, baxuegia dela irizteagatik, Kontratazio mahaiak SPKLren 149 artikuluan aurreikusitako prozedura jarraituko du, lizitatzaileak dagokion justifikazioa egin dezan.

Esleipen proposamenak ez dio inolako eskubiderik ematen lizitatzaileari Zinemaldiaren aurrean. Nolanahi ere, kontratazio organoak ez badu kontratua esleipen proposamenaren arabera esleitzen, arrazoitu egin beharko du erabakia.

16.- KONTRATUA ESLEITZEA

Esleipenerako lizitatzailea(k) aukeratzeko, kontratazio organoa bat etorriko da, oro har, Kontratazio mahaiak egindako proposamenarekin. Kontratazio organoa bat ez badator, arrazoitu egin beharko du proposamenetik bereizteko erabakia eta, hala badagokio, proposamenen behin betiko sailkapena egingo du.

Zerrenda bat egingo da hotel bakoitzak lortutako puntuazioekin, eta gela-kopuruak kontratu bat baino gehiago formalizatzea dakarrenez, sailkatutako hotel guztiek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute 10 egun balioduneko epean, Zinemaldiaren errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita:

1) Eskaintzak aurkezteko azken egunean honako baldintzak eta eskakizunak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak: Zinemaldiarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintza guztiak eta plegu honetako 11. klausulan ezarritakoak, hau da, kontratatzeko debekurik ez duela eta gaitasuna eta kaudimena. Agiri horiek jarraian adierazten den moduan idatziko dira.

Proposamena aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuek egin badute, aldi baterako elkarte hori osatuko duten enpresa guztiak aipatu beharko dira agiri horietan.

a) Lizitatzailearen eta, hala badagokio, haren ordezkariaren jarduteko gaitasuna eta nortasuna egiaztatzen duten agiriak, informazioa aurreko lizitazioan aurkeztutakoarekiko aldatu bada:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna eratze-agiriaren edo eskrituraren bidez, estatutuen bidez edo sortze-egintzaren bidez egiaztatuko da; betiere haien jarduera erregulatzeko arauak agiri horietan egon beharko dira jasota, eta pertsona juridiko motaren arabera dagokien erregistro publikoan behar bezala erregistratuta egon beharko dira, hala badagokie.
- Espainiakoak ez diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrak direnean, ezarrita dauden estatuko legediaren arabera dagokien erregistroan izena emanda egiaztatuko da, edo zinpeko aitorpena edo ziurtagiri bat erregelamenduz ezarritakoaren arabera aurkeztuta, aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenak kontuan hartuta.
- Atzerriko gainerako enpresaburuek, jarduteko gaitasuna dutela egiaztatzeko, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren txostena aurkeztu beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko Kontsuletxeko Bulegoaren txostena. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak aukera ematen diela Espainiako enpresei SPKLren 3. artikuluan zerrendatzen diren sektore publikoko erakundeekin egiten diren kontratazioetan funtsean modu bertsuan parte hartzeko.
- Pertsona fisikoak diren enpresaburuek nortasun agiri nazionala edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztuko dute jarduteko gaitasuna egiaztatzeko.
- Ordezkari gisa aurkezten diren pertsonek, edo proposamenak beste norbaiten izenean sinatzen dituztenek, nortasun agiri nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta horretarako ahalorde askietsia ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko da, Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan aurreikusitakoak horrela eskatzen badu, edo, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan, dagokion pertsona juridiko motaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzaileek, bestalde, erregistroaren ardura duen legelariak emandako ziurtagiriaren kopia aurkez dezakete, (a) atalean aipatutako dokumentazioaren ordez. Inskripzio-ziurtagiriarekin batera, ziurtagiriak adierazitakoa ez dela aldatu adierazten duen erantzukizunpeko aitorpen sinatua aurkeztuko du lizitatzaileak.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, plegu honetan **IV. Eranskin** gisa jasotako ereduaren araberakoa, lizitatzailea SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duena.

2) Hala badagokio, eskatutako kaudimena edo gutxieneko giza baliabide eta baliabide material zehatzak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu nahi badu, adierazpenen notario-akta, **III. Eranskineko** ereduaren arabera.

3) Hala badagokio, aldi baterako enpresa elkartea legez eratu izanaren ziurtagiria. Kasu horretan, aldi baterako enpresa elkartearen izenean ordezkari edo ahalordedun bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko, kontratua azkendu arteko ahalorde askirekin.

4) Hala badagokio, erantzukizun zibileko aseguruaren egiaztagiria, aseguru-etxeak sortu, sinatu eta zigilatuta, eta Karatulako 19. puntuan adierazten diren baldintzak betez.

5) Erantzukizunpeko adierazpena, datu pertsonalen tratamenduaren euskarriak izango diren zerbitzarien kokapen fisikoa eta haiei lotutako zerbitzuak eskainiko diren lekua identifikatuz.

Zinemaldiak eskubidea du lizitatzaileak aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

Aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak edo omisioak hautemango balira, Zinemaldiak 3 egun naturaleko epea eman dezake lizitatzaileak akats edo omisio horiek zuzentzeko.

Eskatutako dokumentazioa ez bada adierazitako epean behar bezala beteta aurkezten edo aurkezten den dokumentazioan zuzendu ezin diren akatsak edo omisioak hautemango balira, lizitatzaileak eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da. Kasu horretan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (BEZ sartu gabe) %3 eskatuko zaio zigor moduan eta hurrengo lizitatzaileari dokumentazio bera eskatuko zaio, eskaintzen sailkapeneko ordenari jarraituz.

Kontratazio organoak aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo 5 egun baliodunetan esleituko du kontratua, eta proposamenak irekitzen diren egunetik zenbatzen hasi eta gehienez ere 2 hilabeteko epean.

Esleipena ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du kontratazio organoak, eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie jakinarazpenak jasotzeko aukeratu duten bitartekoa erabiliz. Erakunde kontratatzailearen profilean 15 egun naturaleko epean argitaratu beharko da.

17.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratua agiri pribatu baten formalizatuko da, lizitazio-baldintzak zehatz-mehatz jarraituz. Kontratua formalizatzeko agirian inola ezingo dira sartu kontratazio-baldintzak aldatuko lituzketen klausulak.

Adjudikaziodunak kontratuaren eskritura publikoa egitea eskatu ahal izango du; kasu horretan, bere kontura izango dira sortutako gastuak.

Kontratuak irailean formalizatuko dira, ostatu-beharren arabera.

Kontratua formalizatzeko agiria eta dagokion kontratua gehienez ere 15 egun naturaleko epean argitaratuko dira Zinemaldiko kontratatzailearen profilean, behin kontratua formalizatu ondoren.

Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada adierazitako epean formalizatu, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (BEZ sartu gabe) %3a eskatuko zaio zigor moduan. Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzen sailkapen-ordenari jarraituz, plegu honetako 16. klausulan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren. Lizitatzaileak 10 egun balioduneko epea izango du dokumentazio hori aurkezteko.

18.- KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio organoak kontratuaren arduradun bat izendatuko du eta bere lana izango da kontratuaren exekuzioa gainbegiratzea eta hitzartutako zerbitzua behar den bezala eskaintzen dela ziurtatzeko erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea, Zinemaldiak esleitu dizkion eskumenen baitan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, Zinemaldiarekin lotura duena edo erakundeaz kanpokoa. Kontratistak nahitaez beteko ditu kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak.

19.- KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua honako baldintzak jarraituz gauzatuko da:

- Kontratistak kontratua gauzatuko du kontratuan bertan ezarritako baldintzei eta klausula administratibo partikularren plegu honetan eta karatulan, baldintza teknikoen pleguan eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan xedatutakoari jarraituz, bai eta, kontratuaren interpretazioari dagokionez, Zinemaldiak kontratistari emandako aginduei jarraituz ere.

- Kontratuak lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko osasun eta segurtasunaren arloan indarrean dauden eta aplikatzekoak diren lege- eta erregelamendu-xedapenak eta xedapen konbentzionalak bete beharko ditu.

- Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko da.

- Zinemaldiak kontratu betebeharrak zuzen betetzen direla eta kontratua behar bezala gauzatzen dela kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

  Horretarako, Zinemaldiak egokitzat jotzen dituen kanpo laguntzak jaso ahal izango ditu, kontratu betebeharrak behar bezala betetzen direla eta lanak kalitate-maila egokiaz egiten direla egiaztatzeko edo ikuskatzeko.

  Kontratistak Zinemaldiak zerbitzuekin lotuta eskatzen dizkion datu guztiak aurkeztuko ditu, beharrezkoa den laguntza guztia eskainiko du, kostu gehigarririk gabe, eta, zenbait kasutan, kontratatutako zerbitzuen lan, administrazio, edo bestelako alorretako dokumentazioa emango du.

  Kontratistak ez du oztoporik jarriko Zinemaldiak egiten dituen ikuskapen- eta kontrol-lanetan.

  Hala ere, Zinemaldiak edozein motatako ez betetze edo eragozpenik atzematen badu, zuzenean kontratistak izendatutako solaskideari jakinaraziko zaio. Honi dagokio, azken batean, zerbitzua eskaintzen duten langileen gainbegiratzea antolatzeko ahalmena edo haiek zigortzekoa.

- Langile guztiak kontratistaren mendekoak dira. Kontratistarenak dira bere enpresa-izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak eta ezin izango zaio Zinemaldiari erreklamaziorik egin dagozkion lan-harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

  Kontratista izango da arduradun bakarra kontratua gauzatzeko ardura duten langileekin – langile propioekin edo azpikontratatzen direnekin- lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). Zinemaldiak ez du inolako lan-erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin loturikoak), ez eta Gizarte Segurantzarekin edo zerga-esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, kontratistak zuzenean edo zeharka hatzen dituen betebeharrei dagokienez. Modu berean, kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua gauzatzean gertatzen diren ezbeharrek eragindako erantzukizunak.

- Kontratistak **karatulako 14. puntuan** adierazitako baldintza bereziak bete beharko ditu, hala badagokio.

20.- FUNTSEZKO KONTRATU BETEBEHARRAK

Honakoak izango dira funtsezko kontratu-betebeharrak:

- Kontratuaren betebehar nagusia betetzea, klausuletan, plegu honetan eta baldintza teknikoen pleguan ezarritakoari jarraituta.

- Indarrean dauden eta lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikagarriak diren lege eta erregelamendu xedapenak nahiz xedapen konbentzionalak betetzea. Testuinguru horretan, kontratua gauzatzen den bitartean, aplikagarri den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordainduko du kontratistak, langilearen kategoria profesionalaren arabera, eta soldata hori inoiz ez da izango hitzarmenean adierazitakoa baino txikiagoa.

- Kontratistaren eskaintzan kontratuaren exekuziorako konprometitutako giza baliabideak eta bitarteko materialak atxikitzea.

- Jarduera bideratzeko beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak lortzea.

- Zerbitzuak unean-unean indarrean dagoen sektoreko araudiak xedatzen duena aplikatuta emango dira. Horretarako, kontratistak eta kontratistaren pertsonalak unean-unean indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen betebeharretako edozein betetzen dituztela egiaztatzen duten (halakorik bada) egiaztagiri guztiak izan beharko dituzte.

- Kontratua gauzatzen den bitartean, plegu honen 24. klausulan kontratistari eskatzen zaizkion estaldurak eta aseguruak kontratatzea edo mantentzea, gutxienez.

- Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragin ahal zaizkien kalte-galera guztien ordainak ematea.

- Kontratua behar den bezala garatu eta betetzeko Zinemaldiak beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak eskaintzea –laneko edo informazioko bileretan parte hartzea, adibidez-, ordainketa gehigarririk jasotzeko eskubiderik gabe. Betebehar hori kontratua amaitu arte mantenduko da.

- Greba egiten den kasuetan, zerbitzuak betetzea. Aipatutako zerbitzuak bermatzen ez badira, Zinemaldiak horiek betetzeko beharrezko kontratuak jar ditzake martxan, eta fakturaziotik kenduko ditu horri dagozkion zenbatekoak.

  Grebak dirauen bitartean, benetan eman diren zerbitzuen prezioa bakarrik ordainduko da.

- Langileak ordezkatzea, hauek eurei dagokien funtzioa arduraz eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, zerbitzuak eskaintzean ardura nahikoa ez badute edo kontratua egokiro garatzeko kaltegarriak diren ekintzak egiten badituzte. Zinemaldiak solaskide edo arduradunari, eskaera egin eta gehienez ere 24 orduko epean egingo dira ordezkapenak. Langileen ordezkatzeek ez dakarte inolako erantzukizunik Zinemaldiarentzat, kontratistak eragindako langileekin dituen harremanei dagokienez.

  Langile horiek, beren jarduna hasi aurretik, egiaztatu beharko dute lanpostuak eskatzen duen esperientzia eta prestakuntza dutela, eta Zinemaldiaren oniritzia izan beharko dute.

- Langileak ordezkatzea gaixotasun, opor, baimen, istripu eta abarrengatik izaten diren bajak estaltzeko; betiere, kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorrean eta jarraituan egingo direla ziurtatuz. Gehienez ere 24 orduko epean egin beharko ditu ordezkapenak.

- Plegu honek, Karatulak eta/edo Estatuko eta Europar Batasuneko indarreko legediak datu pertsonalen babesari dagokionez ezartzen dituzten baldintzak betetzea eta betetze hori frogatu ahal izatea.

- Hala badagokio, **karatulako 9. puntuan** adierazitako giza baliabideak eta/edo bitarteko materialak atxikitzea.

- **Karatulako 15. puntuan** adierazitako betebehar zehatzak betetzea.

Klausula honetan eta **karatulako 15. puntuan** aurreikusitako betebeharrak funtsezko kontratu-betebeharrak izango dira, SPKLren 211.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Horiek urratzea kontratua bertan behera uzteko arrazoia izan daiteke, Zinemaldiak nahi badu.

21.- DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratistak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan, eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoan (aurrerantzean, DBEO), Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta kontratua indarrean dagoen bitartean aplikagarria den datu pertsonalen babesaren arloko beste edozein araudi nazionaletan eta Europar Batasunean aurreikusitakoaren ondoriozko betebeharrak bete beharko ditu, bere jardueren esparruan egiten dituen datu pertsonalen tratamenduengatik eta bere kontura eta erabakiagatik, tratamendu horren arduradun den aldetik.

Betebehar hori izango du, **karatulako 16. puntuan** Zinemaldiak datu pertsonalak erabiltzeari buruz berariaz zehazten dena alde batera utzi gabe.

22.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU BETEBEHARRA

Informazio publikora sarbidea izatearen arloan indarrean dagoen legerian aurreikusitakoa eta esleipena argitaratzearen eta lizitatzaileei informazioa ematearen arloan SPKLk xedatutakoa alde batera utzita, Zinemaldiak ezingo du hedatu lizitatzaileek emandako eta eskaintza aurkezten dutenean konfidentzialtzat jotako informazioa. Konfidentzialak izango dira, besteak beste, sekretu teknikoak edo komertzialak, eskaintzetan isilpekotzat jotako alderdiak eta lizitazio-prozedura honetan nahiz ondorengoetan lehia faltsutzeko erabil daitekeen edukia duten informazioak.

Kontratistak, bere aldetik, kontratua gauzatzeko eskuratzen eta ematen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, pleguetan edo kontratuan izaera hori ematen bazaio edo berez konfidentzialtzat hartu behar bada.

Konfidentzialtasun-betebehar hori **karatulako 17. puntuan** adierazitako epean mantenduko da.

23.- ERANTZUKIZUNA

Kontratistak izango du egiten dituen lanen eta eskaintzen dituen zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten dituen ez egiteek, akatsek, metodo desegokiek edo okerreko ondorioek Zinemaldiari edo hirugarren batzuei eragin diezazkiekeen ondorioena ere.

Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragin ahal zaizkien kalte-galera guztien ordainak kontratistak ordainduko ditu.

24.- ASEGURUAK

Kontratistak **karatulako 18. puntuan** adierazitako aseguruak kontratatu beharko ditu, bere kontura, kontratuak irauten duen bitartean, bertan ezarritako inguruabarrak eta baldintzak betez.

25.- JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Kontratista behartuta dago iturri baimenduetatik eta bere kontura eskuratzera lizentziak eta eskubideak, ekipamendu informatikoak (hardwarea eta softwarea) edo beste ekipamendu eta/edo bitarteko osagarri batzuk erabili eta/edo ustiatu ahal izateko, plegu honetan eta baldintza teknikoen pleguan ezarritakoaren arabera, horiek atxiki, jarri eta/edo mantendu behar baditu pleguon xede diren zerbitzuak emateko.

Halaber, SPKLren 308.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio kontratazio honi. Horrela, Zinemaldirako sortu, pentsatu, diseinatu edo garatu diren Jabetza Intelektualaren eta/edo Industrialaren Eskubideen bidez babestu daitezkeen kontratuaren xede diren zerbitzuak gauzatzearen ondoriozko edozein emaitzaren jabetza, oso-osorik edo fase guztietan, Zinemaldiarena izango da esklusiboki. Hori guztia, jabetza intelektualari buruzko legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan eta/edo patenteen uztailaren 24ko 24/2015 Legean xedatutakoaren arabera, kontratistari egokitu dakizkiokeen egilearen eskubide moralak eta/edo asmatzaile gisa aitortua izateko eskubidea eragotzi gabe, eta horiek behar bezala aintzat hartu beharko ditu Zinemaldiak.

Ondorioz, eta, hala badagokio, **karatularen 18. puntuan** berariaz ezarritakoa eragotzi gabe, kontratistak Zinemaldiari bermatu beharko dio kontratuaren xede diren zerbitzuen emaitzaren bakezko erabilera. Halaber, hala badagokio, behartuta egongo da horren parte diren elementu guztien lizentziak eta eskubideak modu legitimoan eta baimendutako iturrietatik lortzera, eta, horiek ematean, adieraziko du ez dagoela kontratazio honen arabera Zinemaldiari dagozkion eskubideen kontrako inolako konpromisorik edo kargarik.

Edonola ere, kontratista erantzulea izango da kontratuarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek, jabetza intelektualari eta/edo industrialari dagokionez, hauekin lotuta egiten dituzten erreklamazioez:

- Jabetza industrialaren edo intelektualaren eskubideen bidez babestutako materialak, erremintak eta tresnak erabiltzea zerbitzuak emateko.

- Kontratazioaren xede diren zerbitzuen emaitza eta/edo emaitza horren parte den edozein elementu.

Aurrez aipatutakoa kontuan hartuta, kontratistak kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio Zinemaldiari, aipatutako arrazoiengatik egindako erreklamazioen ondorioz sortu badira.

Aipatutako guztiaren ondoriozko ordainsaria, hala badagokio, plegu honetako 7. klausulan adierazitako kontratuaren prezioan sartuta dagoela ulertuko da.

26.- ZIGORRAK

a) Atzerapenen ondorio diren zigorrak.

Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, plegu honetan eta/edo karatulan lanak gauzatzeko ezarritako epeak betetzean atzeratzen bada, Zinemaldiak erabaki dezake kontratua plegu honen 32. klausulan adierazitako terminoetan bertan behera uztea nahiz gauzatzen jarraitzea. Bigarren kasu horretan, **karatulako 20. puntuan** adierazitako zigorrak sortuko dira Zinemaldiaren alde, eta kalte-galeren ordainei gehituko zaizkie.

Kontratista berandutza egoeran dagoela aitortzeko ez da beharrezkoa izango Zinemaldiak aurretik errekerimendua egitea.

b) Kontratatutako prestazioak oker gauzatzearen edo kontratuko bestelako baldintzak ez betetzearen ondorio diren zigorrak.

Baldin eta kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, kontratatutako lanak oker gauzatzen baditu edo kontratuko bestelako baldintzak betetzen ez baditu, Zinemaldiak erabaki dezake kontratua plegu honen 32. klausulan adierazitako terminoetan bertan behera uztea nahiz gauzatzen jarraitzea. Bigarren kasu horretan **karatulako 20. puntuan** adierazitako zigorrak sortuko dira Zinemaldiaren alde, eta kalte-galeren ordainei gehituko zaizkie.

Zigorrak kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharrekotik dagokion zenbatekoa kenduz gauzatuko dira.

Nolanahi ere, bai kontratua bertan behera uztea erabakitzen bada bai kontratuarekin aurrera jarraitzea erabakitzen bada, Zinemaldiak, beharrezko jotzen duen denboran, bere baliabideak erabiliz edo hirugarrenen bitartez aurrera jarraitzea erabaki dezake alde bakarrez. Bi kasuetan, kontratistak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte-galeren ordainak eta klausula honetan aurreikusitako gainerako eraginak gorabehera.

27.- KONTRATUA LAGATZEA

SPKLren 98. artikuluan jasotako kontratistaren ondorengotza kasuak alde batera utzita, kontratuaren aldaketa subjektiboak kontratua lagata bakarrik egin ahal izango dira, klausula honetan ezarritako mugen barruan eta aukera hori berariaz aurreikusita badago **karatulako 21. puntuan**.

Lagatzeak dakar SPKLren 214.2 artikuluaren a), b), c) eta d) letretan eskatutako baldintzak betetzea, hau da:

a) Kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik eman behar du lagapena egiteko baimena, SPKLren 214.2.a) atalean adierazitakoari jarraituz. Baimen-eskaerari buruzko erabakia jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da, eta bi hilabete horiek pasatzen direnean emantzat joko da.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren %20 gutxienez gauzatuta izan behar du, SPKLren 214.2.b) artikuluan adierazitakoari jarraituz.

c) Lagapen-hartzaileak sektore publikoko erakundeekin kontratuak egiteko gaitasuna izan behar du, eta, orobat, eskatzekoa zaion kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala izan behar du; eta ez dio eragin behar kontratatzeko ezein debekuk, SPKLren 214.2.c) artikuluan adierazitakoari jarraituz.

d) Adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu behar da, SPKLren 214.2.d) artikuluan adierazitakoari jarraituz.

Lagapen-hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

28.- AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenak kontratatu ahal izango ditu prestazio batzuk gauzatzeko, klausula honetan eta SPKLren 215. artikuluan ezarritakoari jarraituz, salbuespenak izango dira **karatulako 22. puntuan** adierazitako prestazioak.

Edonola ere, kontratistak idatziz jakinaraziko dio kontratazio-organoari, kontratua esleitu ondoren eta, berenduenera jota ere, kontratua gauzatzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa duela, eta prestazioaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duen eta azpikontratista nor den

zehaztuko du (harremanetarako datuak eta azpikontratistaren legezko ordezkariari edo ordezkariei buruzko datuak ere emango ditu), eta, era berean, azpikontratistak kontratua gauzatzeko gaitasuna duela behar bezala justifikatu beharko du, haren elementu teknikoei, giza baliabideei eta esperientziari erreferentzia eginez. Kontratatzeko debekurik ez duela ere egiaztatuko du, SPKLren 71. artikuluari jarraituz.

Kontratista nagusiak idatziz jakinaraziko dio kontratazio-organoari kontratu nagusia gauzatzen den bitartean informazio horretan izaten den edozein aldaketa eta azpikontratista berriei buruz behar den informazio guztia.

Azpikontratistak azpikontratatutako kontratuaren zatia gauzatzeko sailkapen egokia badu, egoera hori jakinaraztea nahikoa litzateke azpikontratistaren gaitasuna egiaztatzeko.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta azpikontratua beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko, edo presazko neurriak hartu behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

Azpikontratistek kontratista nagusiaren aldera baino ez dituzte betebeharrak izango, eta hark bereganatuko du, beraz, erakunde kontratatzailearekiko erantzukizun osoa, kontratua administrazio-klausula berezien pleguari eta kontratuko baldintzei estu-estu lotuta gauzatzeko, ingurumenaren, gizartean edo lanaren arloko betebeharrak betetzea barne dela, SPKLren 201. artikuluari jarraituz.

Zinemaldiak kontratista nagusiak egindako kontratuez dakienak ez du eraginik izango kontratista nagusiak daukan erantzukizun esklusiboan.

Azpikontratisten eta hornitzaileen ordainketak, eta ordainketa horien egiztapena, SPKLren 216. eta 217. artikuluetan xedatutakoari jarraituz egingo da.

29.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratazio-organoak kontratua aldatu ahal izango du, SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Modu osagarrian, kontratazio-organoak kontratua aldatu ahal izango du **karatulako 23. puntuan** berariaz jasota badago aukera hori, bertan aurreikusitako baldintzei jarraituz.

Aldaketa horien ondorioz ezingo dira kontratuan aurreikusi gabe dauden prezio unitario berriak ezarri.

Kontratuaren aldaketak SPKLren 153. artikuluan xedatzen denaren arabera formalizatuko dira.

30.- LANA JASOTZEA

Kontratua guztiz beteko du kontratistak zerbitzua osorik egin duenean, betiere kontratuan adierazitako terminoetan eta Zinemaldiaren adostasunarekin.

Hala badagokio, lanaren zatiak jasotzen diren bakoitzean, edo lan osoa jasotzen denean, Zinemaldiak erabakiko du kontratistak emandako zerbitzua bat datorren hura gauzatzeko eta betetzeko finkatu diren argibideekin. Hartara, hala dagokionean, kontratatu den zerbitzua emateko eta lana jasotzean antzeman diren akatsak zuzentzeko eskatuko zaio.

Kontratistari egotz dakizkiokeen akatsen ondorioz lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, Zinemaldiak horiek bazter ditzake eta ez du ordainketarik egin beharko edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

Horrek ez du eragotziko 26. klausulan aurreikusi dena; horrenbestez, Zinemaldiak dagozkion zigorrak ezarri ahal izango ditu, eta kalte-ordaina eskatu ahal izango du berandutzeagatik, zerbitzuak akatsekin emateagatik edo kontratuko beste edozein baldintza ez betetzeagatik.

31.- KONTRATUA ETETEA

Zinemaldiak kontratua eten ahal izango du SPKLren 208.2 artikuluan aurreikusitako kalte eta galerak ordaintzen badizkio, eragin horietarako horixe izanik berariaz ezarri behar den artikulua.

32.- KONTRATUA DEUSEZTATZEA

Kontratua bete delako edo jarraian araututakoaren arabera adostuta bertan behera utzi delako azkenduko da.

Honakoak izango dira kontratua bertan behera uzteko arrazoiak, Zinemaldiak hala nahi badu:

a) Beste edozein prozeduratan hartzekodunen konkurtsoa deklaratzea edo kaudimen gabezia deklaratzea.

b) Kontratista epeak betetzean atzeratzea.

c) Kontratu-betebehar nagusia ez betetzea.

d) Kontratuko gainontzeko funtsezko obligazioak ez betetzea, kalifikazio hori badute.

e) Prestazioa hasieran adostutako moduan emateko ezintasuna, kontratua plegu honetan aurreikusitakoaren arabera aldatu ezin bada.

f) Kontratua gauzatzen den bitartean, kontratistak kontratuari atxikita dauden langileei soldatak ez ordaintzea; edo, kontratua gauzatzen den bitartean, langile horiei aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea.

g) Oro har, kontratu-betebeharrak ez betetzea, Kode Zibilaren 1124 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

h) SPKLren 313. artikuluaren 1. zenbakian ezarritako kontratua suntsiarazteko baldintzak berariaz dira aplikagarriak, eta honako hauek dira:

   1. Atzera egitea zerbitzuak ematen hasi aurretik edo, kontratazio-organoari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuaren hasiera lau hilabete baino gehiago atzeratzea, kontratuan bertan horretarako adierazitako hasiera-egunetik zenbatzen hasita.

   2. Atzera egitea zerbitzua ematen hasi ondoren edo kontratazio-organoak erabakitako zortzi hilabeteko epea baino gehiago atzeratzea.

Klausula honetan kontratua bertan behera uzteko aurreikusitako arrazoietakoren bat badago, kontratua automatikoki geratuko da bertan behera, eta kasu horretan Zinemaldiak hartu duen erabakia frogatzeko moduan jakinarazi behar dio kontratistari.

Jakinarazpena jaso eta gero, kontratistak berehala jarri beharko ditu Zinemaldiaren esku kontratatu diren prestazioak gauzatzeko ordura arte landu dituen dokumentu guztiak, baita kontratua dela-eta sortutako gainerako dokumentazioa edo informazioa ere, Zinemaldiak erabilitako eta kontratistari emandako agiriekin batera. Aipatutako dokumentazio guztia Zinemaldiarena izango da aurrerantzean.

Horrez gain, kontratuaren likidazio ekonomikoa egingo da ondoren, jarraian adierazten denari jarraituz.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua bertan behera uztean eragiten diren erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua bertan behera benetan uztean eta dagokion dokumentazioa aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, Zinemaldiak hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Kontratua bertan behera uzten den kasu guztietan, benetan egindako eta onartutako prestazio guztien prezioa jasotzeko eskubidea izango du kontratistak, hasiera batean.

Kontratua kontratistari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik uzten bada bertan behera, **karatulako 24. puntuan** aurreikusitako kopurua sortuko da Zinemaldiaren alde, eta dagozkion kalte eta galeren ordainei metatuko zaie. Bi kantitateak kontratistari ordaintzeke dagoen preziotik kenduko dira eta, hala badagokio, soberakinaren erreklamazioa aurkeztuko da.

Hala ere, SPKLren 313. artikuluaren 3. zenbakia berariaz aplikatuko da; hau da:

a) Klausula honen h.1 letran aurreikusitako suntsiarazte-kasuetan, kontratistak, kontzeptu guztiengatik, kontratuaren esleipen-prezioaren %3ko kalte-ordaina (BEZik gabe) jasotzeko eskubidea baino ez du izango.

b) Klausula honen h.2 letran aurreikusitako suntsiarazte-kasuetan, kontratistak, kontzeptu guztiengatik, mozkin industrial gisa emateari utzitako zerbitzuen kontratuaren esleipen-prezioaren %6 (BEZik gabe) jasotzeko eskubidea izango du.

Azkenik, kontratua Zinemaldia eta kontratista ados jarrita uzten bada bertan behera, aldeen eskubideak bien artean balio osoz hitzartutakoari egokituko zaizkio.

33.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua pribatua da, eta kontratua prestatzea Administrazio Klausula Berezien Plegu honek arautuko du; kontratuaren esleipena Administrazio Klausula Berezien Plegu honek arautuko du, eta horietan aurreikusita ez dagoen guztian, berriz, eragin horietarako SPKLn aurreikusitakoak (botere esleitzaile diren eta administrazio publiko ez diren sektore publikoko erakundeek egindako erregulazio harmonizatuko kontratuen kasuan).

Kontratuaren ondorioak eta azkentzea honakoek arautuko dute: Administrazio Klausula Berezien Pleguak eta, bertan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauek. Nolanahi ere, kontratuari SPKLren 319. artikuluan ondorioei eta azkentzeari buruz ezarritako arauak aplikatuko zaizkio.

Horrez gain, SPKL eta 1098/2001 ED aplikatuko dira plegu honek testu arauemaile horietara berariaz jotzen duen guztian.

34.- JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa izango da eskuduna kontratuak prestatzeari, esleitzeari eta aldatzeari buruz sortzen diren auziak ebazteko, azken horien inpugnazioa SPKLren 204 eta 205. artikuluetan xedatutakoa betetzean oinarritzen bada eta aldaketa horrek esleipen berria ekarri behar zuela uste bada.

Hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren aurrean jarriko da errekurtsoa, SPKLren 44. artikuluan eta ondorengoetan aurreikusitakoari jarraikiz.

Jurisdikzio ordena zibilak izango du kontratuaren ondorioei eta kontratua azkentzeari dagozkien bi aldeen artean sortzen diren desadostasunak ebazteko eskumena; salbuespena izango dira klausula honen lehenengo paragrafoan aipatzen diren kontratu-aldaketak.

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

I. ERANSKINA

JAKINARAZPENAK JASOTZEKO LEHENETSITAKO BIDEA IZENDATZEA.

[…] jaunak/andreak, […](e)n bizi denak eta […] NAN zenbakidunak, bere izenean edo […](r)en ordezkari gisa (helbide soziala: […]; IFK: […]), erabateko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izanik, […] lizitazioaren jakitun izanik, honen bidez, lizitazio honen harira egin beharreko edozein jakinarazpen jasotzeko lehenetsitako bide gisa izendatzen du honako hau:

Helbide elektronikoa: _____

[…](a)n, […](e)ko […](a)ren […](e)(a)n.

[Sinadura]

II. ERANSKINA

FORMULEN BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO PROPOSAMENA

[…] jaunak/andreak, […](e)n bizi denak eta […] NAN zenbakidunak, bere izenean edo […](r)en ordezkari gisa (helbide soziala: […]; IFK: […]), erabateko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izanik, […] lizitazioaren jakitun izanik, honen bidez, lizitazio honen harira egin beharreko edozein jakinarazpen jasotzeko lehenetsitako bide gisa izendatzen du honako hau:

ADIERAZTEN DU

LEHENA.- […](r)en kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen duela, ondorengo baldintzekin:

	BEZik gabe	**BEZarekin**
Banakako erabilerarako logela bikoitza		
Logela bikoitza		

Gau bakoitzeko prezioak, gosaria barne.

BIGARRENA.- Kontratua arautzen duen dokumentazioa ezagutzen duela eta osoki bere gain hartzen eta onartzen dituela.

[…](a)n, […](e)ko […](a)ren […](e)(a)n.

[Sinadura]

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

III. ERANSKINA

ADIERAZPENAK JASOTZEKO NOTARIO-AKTAREN EREDUA, LIZITATZAILEAK, ESKATUTAKO KAUDIMENA ETA/EDO BALIABIDEAK JARTZEKO KONPROMISOA EGIAZTATZE ALDERA, BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENEAN ETA/EDO BALIABIDEETAN OINARRITU NAHI IZANEZ GERO

[OHARRA: Lizitatzaileak eskaintza onena aurkeztu badu eta, eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak jartzeko konpromisoa egiaztatze aldera, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu bakarrik aurkeztu behar da. ***Hirugarren erakundeak bete behar du****]*

[…] jaunak/andreak, […] NAN zenbakia duenak, […] enpresaren legezko ordezkari gisa, (enpresaren IFZ: […]), adierazten du osoki ezagutzen dituela […] (lizitazio-enpresaren izena) lizitatzailea aurkezten den […] kontratatzeko lizitazio-baldintzak, eta adierazten du aipaturiko lizitatzailea adjudikaziodun gertatuz gero, haren esku kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren bitarteko guztiak jarriko dituela, eta ez duela asmo horretan atzera egingo; halaber, espresuki onartzen du Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa. […](e)k berariazko baimena eman beharko du ordezkapena edo aldaketa egiteko.

Idazki hau aurkezteak esan nahi du […](e)k onartzen duela aipatutako konpromisoa, dagokion lizitatzaileak esleipena irabazten duen kasuan.

[…](a)n, […](e)ko […](a)ren […](e)(a)n.

[Sinadura]

IV. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

[…] jaunak/andreak, […](e)n bizi denak eta […] NAN zenbakidunak, bere izenean edo […](r)en ordezkari gisa (helbide soziala: […]; IFK: […]), erabateko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izanik, […] lizitazioaren jakitun izanik,:

ADIERAZTEN DU

Eskaintza hau aurkezten den egunean, ez dagoela Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuen eraginpean..

Berariaz onartzen duela Zinemaldiak gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, esleipen- eta gauzatze-prozesutik eratorritako datu guztiei (esleipenduna izanez gero), amaitu arte.

[…](a)n, […](e)ko […](a)ren […](e)(a)n.

[Sinadura]